

BAIMENDU GABEKO SEXUALITATEA

***Erakusketa iragankor baten gida -Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa
(2018.10.27)***

a) Portaera urratzaileak: ezkontzatik kanpoko harremanak

1

1572-01-26, Hondarribia

AHPG-GPAH 3/0376,A:116r-130v
(Hondarribiko eskribautzen funtsa)

Gracia Urdanibiakoak Maria Espinalekoaren kontra ipinitako kereila Juan Alzateko bere senarrarekin duen ohaidetze dela eta.

Garrantzia: izenburuan 'Sobre amañçebamiento siendo casados'
15 o.

2

1602-03-04, Astigarraga

AHPG-GPAH 3/3353,A:107r-110v
(Hernaniko eskribautzaren funtsa)

Hitzarmena, Katalina Portubururen eta Joanes Guruzeaga bikarioaren artekoa, non azken honek konpromiso hartzen duen diru kantitate bat ordainduko diola Katalinari harekin izan bait ditu lau seme-alaba.

Garrantzia: Garaian elizgizonen artean ez zen ezohiko kasua.
4 o.

3

1748-06-21, Zumarraga

AHPG-GPAH 1/4242,A:114r-114v
(Zumarragako eskribautzaren funtsa)

Aitatasuna onartzeko eskritura, Oñatiko Manuel Mendizabalek egina, Zumarragako Martin Mendizabal bere semea dela onartzen duena.

Garrantzia: Manuelek Martin semea Zumarragako Maria Garzia Lekuonarekin izan zuen, 1728an, bera ezkontuta zegoela eta Maria alargun. Eskritura egiten den unean Martin semea marinela da Caracaseko Erret Konpainiako itsasontzi batean.

4

1890-10-21 1890-11-18, Bergara / 1885-10-10, Mutriku

AHPG-GPAH 1/4980,A:1058r-1093r
(Bergarako notariotzen funtsa)

Testamentu itxia irekitzeko autoak, Manuel Blandin Arresek emandako testamentuarena.

Garrantzia: Blandinek izkutuko bi seme alaba izan zituen, haren heriotzaren orduan inor ezagutzen ez zituenak, eta ondare guztiak haiei uzten die. Horrexegatik seme alabaren argazki bana sartzen ditu testamentuan, zeintzuk ziren argazkiekin kontrasta zezaten.
36 o. Hiru argazkiekin.,

b) Gezurretan oinarritutako sexualitatea: estuproa

5

1552-08-27, Hondarribia

AHPG-GPAH 3/0318,A:28r-37v
(Hondarribiko eskribautzaren funtsa)

Maria de Agirrek Leon de Añatxuriren kontra bultzatutako auzia, Leonek ezkon-hitza eman eta ez baitzuen bete.

13 o.

6

1759-1761, Oñati

AHPG-GPAH AU62/4
(Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko funtsa)

Kereila kriminala, Jose Olazaranek bere alaba den Paula Olazaranaren izenean Rafael Mendizabalen kontra aurkeztutakoa, estuproagatik. Mendizabal oñatiarra eta Unibertsitateko ikaslea da.

Garrantzia: Orain urte batzuk Oñatin antzeztutako antzerki baten iturri zuzena.

308 o.

7

1783, Eskoriatza

AHPG-GPAH 9/0047/07
(Eskoriatzako eskribautzaren funtsa)

Eskoriatzako alkatearen aurrean izandako auzi kriminala, Domingo Arana eta bere emaztea Maria Etxeberriak Francisco Padilla eta bere emaztea Isabel Abarrategiren kontra sustatua, irainduak izan zirela eta.

Garrantzia: Moral sexualarekin erlazionatutako aipamen ugari.

31 o.

c) Biolentzia

8

1555-03-18, Mutriku

AHPG-GPAH 1/2577,A:23r
(Mutrikuko eskribautzaren funtsa)

Ahalordea, Mutrikuko Maria Altamirak emandakoa, korrejidorearen aurrean duen auzian haren izenean aritzeko. Auzia haren senarraren kontra da, tratu txarrak eman dizkio eta.

Garrantzia: '...le abia maltratado muchas e dibersas veçes a ella e a sus hijos dandoles de palos e pedradas e heridas e seguido por las calles por les matar...'
2 o.

9

1762, Oñati

AHPG-GPAH AU63/1
(Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko funtsa)

Auzi eskea eta autoak, Joakin Elgeta unibertsitateko ikasleak Gasteizko Kasimira Diaz Jauregiren kontra egindako auziarenak. Kasimirak Joakin salatzen du bortxaketagatik.

289 o.

10

1894-07-09 Donostia

AHPG-GPAH 3/3955/240
(Donostiako notariotzen funtsak)

Barkamena, Damian Herrerorena; Josefa Corral Herrerori egingako bi bortxaketa saiakerengatik zigortua izan zena.

d) Barkamenetik zigorrera

11

1591-06-31 Astigarraga

AHPG-GPAH 3/0223,A:27r-28v
(Hondarribiko eskribautzaren funtsa)

Hitzarmena eta estuproagatik kereilari uko egitea, Astigarrako biztanle Katalina Erretegiren eta bertako auzo den Pedro Goardiaren artekoa.

Garrantzia: Magdalenak Goardia izeneko alaba izan du. Katalinak korrejidorearen aurrean kereila jarri zuen, eta honen ondorioz Pedro preso hartu zuten.

2 o.

1831-05-08, Zumarraga

AHPG-GPAH 1/4302,C:82r-83r
(Zumarragako eskribautzaren funtsa)

Betekizuna, Elosuako Martin Muruak Zumarragako Jabiera Urkiolari emandakoa, 75 dukat ordaintzeko ezkontzatik kanpo izandako semearen janariak direla eta.

2 o.

e) Beste garai batzuk, beste ohitura batzuk

1587-05-27, Azpeitia

AHPG-GPAH 2/0154,A:136v-137v
(Azpeitiko eskribautzaren funtsa)

Oinorderik gabe uzteko agindua, Martin Ibañez Akemendi lizentziatuak eta Maria Lopez Antxietakoa emazteak emandakoa, haren alaba den Maria Antxietakoari oinordetzatik gabe uzteko.

Garrantzia: Maria alaba bakarra da eta Martin Perez Arandiakoarekin Frantziara ihes egin du 'a tierra de Luteranos', '... (que) han contraido matrimonio clandestino...' eta '... (que) el dicho Martin Perez de Arandia y sus padres eran enemigos notorios suyos...'.

2 o.

1539-10-14, 'Casas de la mujer e hijos de Juan Martines de Çarauz, en la rebal de la villa de Deba'

AHPG-GPAH 2/1883,A:117v-118v
(Debako eskribautzaren funtsa)

Ezkontza hitzarmena, Errenteriako auzo diren Juan Ortiz Agirre eta Maria Migel Arrietaren artekoa.

Garrantzia: Barnean, erlijioaz kanpoko ezkontzaren lekukotza, bi ezkonberriak ohe berean sartuak daudela.

2 o.